

Maite Alonso, lehendakaria Xabier  
Aizpurua  
Juan Carlos Jauregui  
Amaia Jauregiberri  
Isabel Kapanaga  
Mari Tere Ojanguren  
Antxon Rodríguez  
Eva Blanco, Idazkari teknikoa

**16/05 IRIZPENA**

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2016ko uztailaren 5eko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **Euskal Autonomia Erkidegoan lehendik dagoen ikastetxe baten**

**eraldatze, fusio edo banatze batetik datozen lanbide heziketako ikastetxe bateratu pribatuak baimentzeko, eta baimen horiek aldatzeko edo bertan behera uzteko prozedura ezartzen duen agindu proiektuari buruzkoa.**

## **I. AURREKARIAK**

Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako zentro bateratuak arautzen dituen apirilaren 1eko 46/2014 Dekretuak dio lanbide heziketako zentro bateratuak direla, aipatutako dekretuan ezarritako baldintza guztiak betetzeaz gain, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko prestakuntza-eskaintza guztiak dituztenak. Prestakuntza-eskaintza horiek izango dira baimenduta dituzten lanbide-familia edo -arloi dagozkien eta horrela sortuak edo baimenduak izan diren lanbide heziketako tituluak eta profesionaltasun-ziurtagiriak lortzera bideratutakoak.

Orobat dio lanbide heziketako zentro bateratuek hasierako lanbide heziketako irakaskuntzak eskainiko dituztela (erdi- nahiz goi-mailako graduatukoak) eta baita ere enplegurako lanbide heziketakoak, betiere Lanbide Heziketako Sailburuordetzak zehaztutako gutxieneko lanbide-familia kopuru bati lotuta.

Bestalde, lanbide heziketako zentro bateratuek bete beharreko baldintzak zehazten ditu.

Azkenik, bere 8. artikuluan dio hezkuntzaren eta enpleguaren arloan eskumena duten sailek, batera emango duten agindu baten bidez eta ikastetxe pribatuko titularraren eskariz, lanbide heziketako ikastetxe pribatu bateratuak baimen ditzaketela, dekretu honetan ezarritako baldintzen arabera.

## II. EDUKIA

Agindu proiektu honek 12 artikulua, xedapen gehigarri bat eta azken xedapen bat ditu.

1. artikulua arauaren xedea ezartzen du, eta 2. artikulua lanbide heziketako zentro bateratu pribatuak baimentzeko baldintzak ezartzen ditu.

3. artikulua azaltzen du zeintzuk diren eskaera eta aurkeztu beharreko dokumentazioa entregatzeko epeak, eta baita nola aurkeztu behar diren ere. Bestalde, 4. artikulua zehazten du zein den eskaera eta dokumentazioa zuzentzeko prozedura, behar den kasuetarako.

5. artikulua dio nori dagokion 2. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko eskumena.

6. artikulua ebazpen-proposamenari buruzkoa da. 7. artikulua dio baimentze-prozedura ebatziko dela lanbide heziketaren, hezkuntza sistemaren eta enplegurako lanbide heziketaren esparruetan eskumena duten sailek batera emandako agindu baten bidez, eta jaso behar dituen datuak zerrendatzen ditu.

8. artikulua ezartzen du lanbide heziketako zentro bateratu bat irekitzeko eta martxan jartzeko baimena inskribatu egin behar dela ikastetxeak baimentzeko eskumena duen zuzendaritzako erregistroan, eta 9. artikulua baimena ematearen ondorioak zehazten ditu.

10. artikulua dio baimena aldatuko dela, baldin eta datuetan edo instalakuntzetan aldaketaren bat gertatzen bada. 11. artikulua azaltzen du baimena bertan behera utziko dela, jarduera amaitzen bada edo baimena kentzen bada.

12. artikulua isiltasun administratiboaren ondorioak ezartzen ditu.

Xedapen gehigarriak ezartzen du hitzarmenak mantendu egingo direla lanbide heziketakoak ez diren irakaskuntzak banatu ondoren sortutako zentroentzat.

Lehen Azken Xedapenak dio noiz sartuko den indarrean Dekretua.

## II. BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK

Euskadiko Eskola Kontseiluak 12/10 Irizpena eman zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako zentro bateratuak erregulatzeko Dekretu proiektuari buruz. Han egindako ekarpenetako batzuk kontuan hartu ziren apirilaren 1eko 46/2014 Dekretuaren behin betiko idazkeran.

Kontseiluak ulertzen du Agindu proiektu honetan zentro hitzartuak baimentzeko prozedura bakarrik lantzen dela, oinarritzko araudia lehendik ezarrita baitago 42/2014 Dekretuan, eta, beraz, balorazio positiboa egin du.

Hala ere, atentziora deitu nahi du zioen azalpeneko azken paragrafoari buruz, zeinak honakoa baitio: *“Beraz, lanbide heziketako zentro bateratu pribatuak baimentzea proposatzen da, lanbide heziketako zentro bateratuen sare bat sortzeko, eta, horrela, 46/2014 Dekretuan azaldutako helburuak bermatu eta bultzatzeko, **betiere lurralde-banaketa eta banaketa sozial orekatu batekin**”.*

Kontseiluaren iritziz, baimena eskuratzeko baldintzak bete behar direnez, zaila da lurralde-banaketa bermatzea, eta are zailagoa banaketa soziala ziurtatzea, kontuan harturik gainera esanahia ez dela oso zehatza testuinguru honetan. Horregatik, proposatzen du paragrafoaren amaiera (*“...betiere lurralde-banaketa eta banaketa sozial orekatu batekin.”* dioena) ezabatzea.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbon, 2016ko uztailaren 6an  
IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

PRESIDENTEA

Sin.: Maite Alonso Arana

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILBURUA